

BERGARAKO UDALA

**MUSEOKO TEKNIKARI PLAZA JABETZAN BETETZEKO DEIALDIA
CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN EN PROPIEDAD DE LA PLAZA DE
TÉCNICO/A DEL MUSEO**

**AZTERKETA TEORIKOAREN INGURUKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE LA PRUEBA TEÓRICA**

Esp. 2023LAAU0004

Oposizioaldiko proba teorikoa 2024ko martxoaren 26an egin zuten izangaiei jakinarazten zaie egindako proba zuzentzeko irizpideak ondorengo orrietan jasotakoak direla.

Se les comunica a las personas aspirantes que realizaron la prueba teórica de la fase de oposición el 26 de marzo de 2024 que se adjuntan en las siguientes paginas los criterios de corrección de la prueba realizada.

1 ZATIA: TEST

Test izaerako galdera bakoitzak 0.25 puntuko balioa du eta gaizki erantzundako eta erantzun gabeko galderak ez dute penalizatzen. Guztira zati honek 5 puntuko balioa du.

Erantzun zuzenen txantiloia:

Galdera / Pregunta	Erantzuna / Respuesta
1	B
2	B
3	C
4	C
5	C
6	C
7	C
8	C
9	B
10	A
11	B
12	A
13	B
14	B
15	A
16	A
17	B
18	B
19	C
20	C
21	A
22	B
23	C
24	B
25	A

2 ZATIA:

Bigarren zati honetako gai bakoitza 100 punturen gain baloratuko da lehenengo eta ondoreneren gai bakoitzean lortu daitezkeen 5 puntuetara egokituko dira.

MUSEOEN KULTURA-ONDASUNAK BILTEGIRATU, MANIPULATU, ENBALATU ETA GARRAIATZEA

- Oro har, manipulazio hitza erabiltzen dugu kultur ondare-gaien mugimendu, garraio edo lekualdaketa dakarren edozein prozedura aipatzeko. Erakusketa, mailegu, zaharberitze, ikerketa edo bestelako mugimenduen ondorioz, ondare-gaiak ezbeharrez kalteak izan ditzakete manipulazioan, enbalajeetan nahiz garraioan. Hartara, komeni izaten da aldeztu aurretik jardunbide egokiak zehaztea, adituekin lan egitea eta behar adina baliabide tekniko erabiltzea. Ondare-gaien kontserbazioa bermatuko bada, behar beharrezkoa da manipulazio egokia, bai eta ondare-gaiak toki egonkor batean kokatzea ere.
- **Objektuaren egoera fisikoaren azterketa:**
 1. Mugimenduak arriskurik gabe egiteko, beharrezkoa da ondare-gaiak arretaz behatzea.
 2. Objektuaren ezaugarrien eta beharrezkoen azterketa sakona egiteak ahalbidetuko digu lekualdatzeko modurik egokiena aukeratzeko.
 3. Behaketan honako hauek aztertu behar dira:
 - Objektuaren ezaugarri fisikoak zein diren (materialak, neurriak, pisua, forma, eta abar).
 - Nolako kontserbazio-egoera edo zaurgarritasuna duen.
 - Atal hauskorrenak zein diren.
- Egin behar da...
 1. Manipulatu aurretik, ondare gaiaren nolakoak ongi aztertu.
 2. Manipulatu aurretik, pitzadurarik, hausturarik edo atal ezegonkorrik ba ote duen miatu.
- Ezin da...
 1. Ondare-gaiarekin ezein maniobrarik egin kalterik badu:
 - itsatsi gabeko zatiak, askatzeko arriskuan edota galtzeko zorian dauden gainazalak, eta abar.
- **Manipulazio teknikak**
- Egin behar da...
 1. Paketeetan, kutxetan edota beste enbalajeetan adierazitako oharrak errespetatu objektuak sartzean edo ateratzean.
 2. Objektuek solte dituzten elementu guztiak kendu. Ezin badira desmuntatu zintzilik dauden aldeak, edota mugitu daitezkeenak, nolabait lotu behar dira.
 3. Esku bat piezaren azpian jarri, objektu txikiei heldzerakoan; beste eskua, alboetan edo goialdean: horrela egonkor eutsiko diegu.
 4. Objektu hauskorak, puskatuak edo zaharberrituak hartzeko tenorean, euskarri egokiak erabili, bai biltegiratzeko, bai garraiatzeko.

5. Objektuei eutsi alderdi zabalenetik eta sendoenetik.
 6. Eskularru estuak erabili.
 7. Eskularru garbiak erabili, zikinkeria objektu batetik bestera ez pasatzeko.
 8. Piezen mugimendu zakarrak edo kulunkakoak saihestu.
- Ezin da...
 1. Objektu astunak edo handiak baliabide egokirik gabe altxa.
 2. • Objektuak heldulekuetatik, kirtenetatik edo eusteko beste alde batzuetatik hartu.
 3. Ondare-gaiak kateatu edo urratu ditzaketen arropa edo osagarriak erabili.
 - **Lekualdaketak**
 - Narriadura gehienak ondare-gaien lekualdaketetan gertatu ohi dira. Horrexegatik, objektu bat mugitu baino lehen, ongi planifikatu behar da nola egin. Oro har, bi lekualdatze-mota bereiz ditzakegu: barnekoa eta kanpokoak. Barne-desplazamendua erakundearen edo zentroaren barruan egiten da. Adibidez, zaharberritzean, ikerketetan, biltegitratzean, argazkiak ateratzean egin ohi diren mugimenduak, irteera bat prestatzeko igarotze-gelara eramatea, eta abar. Mota hauetako barne-mugimenduak erakundeko langileek egin ohi dituzte, ingurune seguru eta kontrolatu batean. Kanpoko lekualdaketetan, aldiz, ondare-gaiak toki batetik bestera mugitzen dira; esaterako, erakusketa batera. Mugimendu horietarako, ezinbestekoa da enpresa espezializatuak kontratatzea. Lekualdatzeko prozesu osoa kontserbazio eta zaharberritze arloko profesionalak gainbegiratu behar dute, une oro
 - Egin behar da...
 1. Ibilbidea planifikatu mugimenduetan parte hartzen duten langile guztiekin.
 2. Erabilgarri dagoen espazioaren distantziak neurtu, pasabidea ziurtatzeko.
 3. Ibilbideak izan ditzakeen oztopo fisikoak aztertu.
 4. Objektua kokatuko den lekua aldeztu aurretik prest utzi.
 5. Lanean hasi aurretik behar den materiala eta baliabideak bildu.
 6. Erpinak edo ertz zorrotzak estali, babesteko materialen batekin: horrela objektuaren beraren edo beste batzuen hausturak edo narriadurak saihestuko dira.
 7. Mugimenduetan, objektuaren oinarria bera erabili euskarri gisa, baldin eta egonkorra bada.
 8. Objektua babestu enbalaje bidez; edukiontzi batean badoa, barrua bigundu, balizko kolpetatik babesteko.
 9. Ondare-gaiak eramateko orgak, transpaletak edo objektuen pisura eta neurrietara egokitutako beste elementu lagungarriak erabili.
 - Ezin da...
 1. Ondare-gaiak zakarki edota arrastaka eraman.
 2. Objektuak esku bakar batekin hartu.
 3. Objekturik pilatu edota zanpatu edukiontzietan

Zuzenketa irizpideak:

- Hau dena aipatzen bada (gutxi gora behera) 100 puntu.
- Falta den beltzez nabarmendutako puntu bakoitzeko 9 puntu kenduko dira.
- Akats larriagatik 15 puntu kenduko dira.

**MUSEOA GAUR EGUNGO GIZARTEAN. DINAMIKA SOZIALAK,
IRAUNKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA.**

1. Dinamika sozialak

Museoa gizartearekin eta honen alderdi anitzekin lotuta dagoen erakundea da eta, hortaz, hauekiko ezartzen diren harremanak funtsezkoak dira. Gizartearen dinamika desberdinek, gainera, zenbait gai presente izatera behartzen dute museoa. Hurrengo gaiak aipatu eta hein batean garatu beharko lirateke:

- Museoeek **testuinguruko eragile sozialekin** harremanak izatea bilatu behar da, hauek aintzat hartuta eta haiekin elkarriketan. Museoa kritikotasunerako eta garapenerako agente gisa ulertzea dinamika horien barnean.
- Gizartearentzako une honetan **funtsezkoak diren gaiak** kontuan izan behar dira eta transbertsalki aplikatu museoaren garapen eta programazioan. Hainbat izan daitezke, baina hiru izendatuko ditugu eta hautagaiak bi behintzat aipatu beharko ditu:
 - o **Feminismoa**
 - o **Kolonizazioa/dekolonizazioa**
 - o **Aldaketa klimatikoa**

2. Iraunkortasuna

Museoek iraunkortasunarekin konpromisoa izan behar dute; gaur egungo ICOMeko eztabaida nagusi asko gai honen inguruan dira. Bi ikuspegietatik heldu behar zaio puntu honi:

- o Museoak iraunkortasunaren inguruko programazioa planteatu eta **kontzientziazio lanak** egin behar ditu
- o Museoek **euren jardunaren iraunkortasuna** aztertu eta hobetu behar dute etengabe. Hau hurrengo puntuen inguruan pentsatu behar da:
 - Azpiegituren mantentzearen aztarna klimatikoa
 - Ondarearen mantentzearen aztarna klimatikoa
 - Programazioaren aztarna klimatikoa (erakusketak...)

3. Irisgarritasuna

Museoek ahalik eta bisitari anitzenak jasotzea izan behar du helburu eta gizarte guztiari irekia egon behar da. Horretarako, irisgarritasun irizpide desberdinak hartu behar dira kontuan:

- o **Irisgarritasun arkitektonikoa**
- o **Edukien irisgarritasuna:** ikusmenean baldintzapena dutenentzat ukimenezko edo beste zentzuekin lotutako aukerak, entzumenean baldintzapenak dituztenentzat azpigituluak eta audiogidak, ulermenean baldintzapenak dituztenentzat irakurketa errazeko testuak.

- **Irisgarritasun soziala:** historikoki museoan baztertua sentitu diren taldeekiko lan berezia.

Zuzenketa irizpideak:

- Dena garatzeagatik 100 puntu.
- Falta den beltzez nabarmendutako puntu bakoitzeko 10 puntu kenduko dira.
- Akats larriagatik 15 puntu kenduko dira.

**EUSKADIKO EGITURA MUSEISTIKOA ETA EUSKADIKO MUSEOEN KATALOGO
KOLEKTIBOA. EMSIME.**

Ondorengo atalak garatu beharko dira:

- Egitura Museistikoa Euskadiko Museoak. Eusko Jaurlaritza: Kultura/Kultura Ondarea/Museoen Zentroa
- Museoen Legea.
- Museoen aholku Batzordea eta erregistroa.
- Zenbat Museo dauden erregistratuta
- Zenbat bilduma dauden erregistratuta
- Zeintzuk dauden erregistratuta (Museo eta bildumak)
- Dirulaguntzak
- EMSIME: zer den; osaketa; nola kudeatzen edo elikatzen den...
- MUSEOTIK aipatzea
- Museoen banaketa

Zuzenketa irizpideak:

- Puntu bakoitza 10 puntu
- Denak garatzeagatik 100 puntu.